



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzak 28

Vitoria-Gasteiz, 28 de mayo de 2019

Lehendakaritza

JAURLARITZAK AURTEN 30 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARA

- **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzaturako 250 proiektu inguru daude abian gaur egun**

Jaurlaritzaren Kontseiluak oniritzia eman dio garapenerako lankidetzaren proiektuen deialdia egiteari eta guztira 30 milioi euro bideratuko ditu horretarako.

Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako diru-laguntzek Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzaren burutzen duen jardueraren ardatza osatzen dute eta horietara bideratu dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatzen dituen funts gehienak.

Diru-laguntzok hiru modalitate hauetako proiektuak finantzatzeko izango dira:

1. **Garapenerako lankidetzaren proiektuak**, Hegoaldeko herrialde txiroetako pobrezia aurka egiteko. Modalitate horretara bideratuko dira diru-laguntza gehienak: guztira, 25 milioi euro, hain zuzen.
2. **Garapen produktiborako, prestakuntzarako eta laguntza teknologikorako proiektuak**, Hegoaldeko herrialde txiroetako pobrezia aurka egiteko zuzenean. 1 milioi euro bideratuko dira horretara.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan **garapenerari buruz egindako hezkuntza proiektuetarako diru-laguntzak**, munduan desberdintasunak sorrarazten dituzten arrazoiak ulertarazteko eta oraingo gizarte-ereduak eraldatzen herritarren inplikazioa eta konpromisoa sustatzeko. 4 milioi euro bideratuko dira proiektu horietarako.

Laguntza horien hartzzaileak EAEko GGKEak izango dira, edota Euskadin ordezkaritza dutenak, baldin eta Hegoaldeko herrialdeetako erakunde eta mugimenduekin batera ari badira lanean.

Proiektu bakoitzerako diru-laguntza gehienez ere 600.000 eurokoa izango da eta proiektuaren iraupena bi urtekoa izango da. Honako sektore hauetan kokatuko dira proiektuok: eskubide unibertsaletan, gobernantza demokratikoan eta tokiko boterean, tokiko garapen ekonomikoan, ingurumena babestu eta zaintzean eta emakumeen ahalduntzean.

Gaur egun, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 250 bat proiektu finantzatzen ditu mundu osoan. Horietako gehienak, Euskadin eta honako herrialde hauetan gauzatzen ari dira: Peru, Bolivia eta Ekuador, Hegoamerikan; Guatemala, El Salvador eta Mexiko, Ertamerikan; Kongoko Errepublika Demokratikoa, Senegal eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Afrikan; eta India eta Palestina Asian.

Eskabideak nola izapidetu eta zein dokumentazio aurkeztu behar den jasota dago <https://euskadi.eus> egoitza elektronikoan eta www.elankidetza.euskadi.eus webgunean.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lehendakaritza

MILIOI BATEKO LAGUNTZA CEAR-ENTZAT, OÑATIKO LARRAÑA ETXEA ATERPETXEAN HARTUTAKO MIGRATZAILEEI ARRETA EMATEKO

Gobernu Kontseiluak, gaur, CEAR Euskadiri milioi bateko dirulaguntza ematea onetsi du, Euskadin nazioarteko babesak eskatzen duten eta Oñatiko *Larraña Etxea* lehen harrerako zentroan beren egoera argitu arte dauden pertsona eta familiei arreta, orientazioa eta laguntza emateko.

Gaur, pertsona bat babeslekua jasotzeko eskatzaile gisa onartu dela egiaztatzeko poliziaren aurreko izapideak luzatu egiten dira 6 eta 15 hilabete bitarteko aldietan. Larraña Etxearen helburua da, zehazki, pertsona horien beharrei erantzutea, alternatiba bideragarriak eta egonkorrak eta beren egoera eta interesetara egokitzen direnak bilatu bitartean. Salbuespen gisa, aterpetxeak ahultasun-egoeran dauden, iragaitzazkoak diren edo Euskadira heldu berriak diren migratzaileak ere hartzen ditu.

Horrela, zentroak pertsona horien oinarrizko beharrei erantzuten die, alegia: harrera (jateko, lo egiteko eta berezko espazioa izateko egoitza-espazioa); osasun-arreta (Osakidetzarekin koordinazioan); arreta juridikoa; hizkuntza ikastea (Oñatiko boluntarioen bidez eta eskolak HHEn), eta prestakuntza (futbola, saskibaloia, informatika, jostakuntza eta herriko azoka eta jardueretan parte hartzea). Gainera, zentroko cateringeko zerbitzuak eta garbiketakoak eta ikuztegiak gizarteratzeko enpresek kudeatzen dituzte.

27 nazionalitatetako 132 pertsona

Aterpetxeak atak 2018ko urrian ireki zituen, eta, hasiera batean, 100 plazarentzako lekua du, eta kopuru hori, behar izanez gero, zabaldu daiteke. Ireki zenetik, Larraña Etxeak 132 pertsona hartu ditu, 27 nazionalitatetakoak. Artatutako pertsonen profila, egun arte, honako hau izan da: gizonezko gaztea (20 eta 30 urte bitartean), Saharaz hegoaldeko Afrikakoa (Ginea, Conacry, Kamerun, Boli Kosta...). Gaur egun, zentroan 84 pertsona bizi dira; horien artean, kargura adingabeak dituzten hiru familia eta bikote bat.

Zentroko kudeaketaren zuzendaritza koordinazioan daramate CEAR Euskadik eta Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin harremanetan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK 828.000 EURO INBERTITU DITU EUSKADIKO HIRU MAILA INSTITUZIONALETAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONEN PRESTAKUNTZAN

- IVAPen bidez, Gobernuak langile publikoen prestakuntza eta etengabeko hobekuntza bultzatzen ditu, herritarrei ematen dien zerbitzu publikoa hobetzeko
- Toki-administrazioek ia milioi erdi euro jasoko dute, 15.000 biztanletik beherako udal, mankomunitate edo kuadrilletako langile publikoei prestakuntza emateko

Gobernu Kontseiluak, gaur, bi laguntza-deialdi deitu ditu, 2019. urte honetan Euskadiko autonomia-erkidegoko, foru-mailako eta toki-mailako administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko. 828.000 euroko laguntzak dira, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) [“Dirulaguntzen Plan Estrategikoa”](#)n jaso dira.

Helburua da Gobernuak, aldundiek eta toki-administrazioek (udal, mankomunitate edo kuadrillak) onetsitako etengabeko prestakuntza-plan eta -programak abian jartzen laguntzea:

- Autonomia-erkidegoko administrazioa: 125.000 euro
- Foru-administrazioak: 218.000 euro
- Tokiko administrazioak: 485.000 euro

IVAP

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) helburuetako bat, besteak beste, honako hau da: *“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta beste edozein administrazio publikok edo antolamendu juridikok bere esku utz dezakeen funtzionarioen eta kontratudunen prestakuntza eta hobekuntza”*. Era berean, honako helburu hau ere nabarmendu behar da: *“lurralde historikoekin, udalekin eta Euskadiko toki-administrazioiko gainontzeko erakundeekin elkarlana sustatzea, langileei prestakuntza eta hobekuntza emateko”*.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK, AURTEN ERE, LEIZAOLA SARIEN DEIALDIA EGIN DU, EUSKAL AUTONOMIAREN BEREZITASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN LANETARAKO

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) 20.000 euroko saria emango dio lanik onenari, eta 10.000 euroko accesita
- Aurkeztutako testuek argitaragabeak izan beharko dute eta uztailaren 8a baino lehen aurkeztu, www.ivap.euskadi.eus webgunearen bidez

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Jesús María Leizaola 2019*” sariaren deialdia onetsi du, honako hauetarako: “*euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balio izanik, hainbat aztertze eta ikerketa ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako*”. Saria Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) ematen du.

Deialdia banakoei eta horretarako eraturako lantaldeei zuzentzen zaie. Sarirako monografia-izaera duten argitaratu gabeko ikerlanak aurkeztu ahalko dira, honako esparru hauek jorratzen dituztenek: “*autonomietako estatuaren konfigurazioa eta Euskal Autonomia Erkidegoa; Euskal Autonomia Erkidegoko eraketa, errealitatea eta etorkizuna; beraren gobernu-erakundeak, maila politiko-administratibo guztietan; historia, kultura, bibliografia, zuzenbide, ekonomia, finantza, aurrekontu, fiskalitate, gizarte, estatistika eta beste arloen inguruko berriazko berezitasunak; eta euskal administrazioetako diseinu, antolaketa, funtzionamendu eta etorkizuna*”.

Sarirako aurkezten diren lanak deialdia EHAA-n argitaratzen denetik aurrera aurkeztu beharko dira, 2019ko ekainaren 5etik aurrera, 2019ko uztailaren 8ra arte, www.ivap.euskadi.eus webgunearen bidez. Eskabideak, ikerlanarekin batera, izapidetze elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira.

Sariak ikerlan zientifiko onenei emango zaizkie, eta, edizio berri honetan, 30.000 eurokoa izango da:

- 20.000 euro lehen sarirako
- 10.000 accesit baterako

“**JESÚS MARÍA LEIZAOLA**” SARIA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) saria 1990ean sortu zuen, Jesús María Leizaolaren izenarekin, euskal autonomiaren adierazgarri ospetsu eta esanguratsuenetakoaren oroimenez, euskal sistema autonomikoaren lege- eta ekonomia-bereizgarriei buruzko azterlanak sustatu eta zabaltzeko, institutuaren beraren eginkizunetako bat dela aintzat hartuta.

Harrezkero, erakunde horrek sariaren deialdia egiten du, beren azterlanak, askatasun osoz, euskal autonomiarekin zerikusia duten gaien inguruko azterlanak egiten dituzten edo euskal autonomiaren azterlanean eta sakontzean eragin dezaketen ikertzaileen ahalegina sustatu eta zabaltzeko helburua aldi behin berritzeko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAREN IRITZIZ, POSITIBOA DA EUSKO LEGEBILTZARRAK GENERO IDENTITATEAGATIKO BEREIZKETA GAINDITZEKO ARLOAN AURRERA EGITEA

- **Euskadi herrialde aitzindaria da transexualen aitorpenean, eta beren eskubideen aitortenaren eta diskriminazio ezaren inguruan lortutako adostasun politiko zabala goraiatzeko du**

Gobernu Kontseiluak, gaur, honako lege-proposamen hau izapidetzearen aldeko irizpidea eman du: *“14/2012 Legea aldatzeko Lege Proposamena, ekainaren 28koa, genero-identitateagatiko bereizketarik ezari eta transexualen eskubideen aitortenari buruzkoa”*.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, Legebiltzarraren ekimen positiboa da; izan ere, transexualen izaeraren edo egoeren ondorioz gerta daitezkeen bereizketa guztiak gainditzeko arloan aurrera egiten du. Hori horrela nabarmendu du Euskadi herrialde aitzindaria dela giza izaeraren garapen librearen eta bereizketarik ezaren printzipioan eta, zehatzago esateko, genero-identitatearekiko errespetuan.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren ekimen horrek ekarri duen adostasun zabala goraiatzeko du; horren gaineko irizpena laster bozkatuko da.

EUTANASIA

Era berean, Gobernu Kontseiluak, gaur, irizpiderik ez ematea erabaki du eta, beraz, honako lege-proposamen honen izapidetzea ez baldintzatzea eta ez eragozte: *“Lege-proposamena, Gorte Nagusietan autonomia-erkidegoko legegintza-ekimen gisa izapidetuko dena, Zigor Kodeari buruzko 10/1995 Lege Organikoaren 143.4 artikulua aldatzekoa”*. Ekimenak eutanasia despenalizatzea du helburu. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, EH-BILDUren ekimenak osagai ideologiko handia du eta, hori dela eta, gai horri heltzeko modurik onena aztertzea, eztabaidatzea eta erabakitzea da eta, horretarako, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoek libreki defendatutako jarrerak aintzat hartzea.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 300.000 EUROREKIN FINANTZATUKO DITU BASOGINTZAKO BIOEKONOMIAKO PROIEKTU BERRITZAILEAK

- **Basogintzako lehengaiak eta produktuak eraldatu eta balio erantsi handia duten beste batzuk lortzeko garatuko diren lan pilotuak babestuko dira**
- **Eusko Jaurlaritza lanean ari da Euskadi eremu horretako erreferente gisa posizionatzeko European**

Basogintzako bioekonomian berrikuntza proiektuak finantzatzera bideratutako laguntzak 2019rako iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritza bere azken kontseilu bileran. 300.000 euro bideratuko dira laguntza horietara, basogintzako bioekonomiaren eremuan basogintzako lehengaiak eta produktuak eraldatuta balio erantsi handiagoko beste batzuk lortzeko egingo diren proiektu pilotu berritzaileak babesteko.

Laguntza horiek dira Euskadi bioekonomiaren arloan Europako erreferente gisa posizionatzeko eta horren bidez baliabide naturalen erabilera efizientearen bidez garapen sozioekonomiko iraunkorra edukitzeko asmoarekin Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza garatzen ari den jardunbide iraunkorrak bultzatzeko estrategia irmoetako bat.

Onuradunak eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Enpresa txiki, ertain edo handiak eta enpresa horien elkarteak eta ondasun komunitateak ere izan daitezke onartutako laguntzen onuradunak. Pertsonen gastuak, tresnenak, materialenak eta eraikin eta azpiegiturenak lagundu ahal izango dira diruz, bai eta komunikazio eta dibulgazio ekintzetan egindakoak ere. Diruz lagundu daitezkeen kostuen %80 izango da laguntzaren portzentaje maximoa.

Laguntzaren xede diren proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2019ko abenduaren 31ra arte izango da, alde batera utzita epea luzatzea onartu ahal izango dela.

Eskabideen aurkezpena eta epeak

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Laguntza eskaera <http://www.euskadi.eus> web helbidean egongo da eskuragarri, eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren bulegoetan aurkeztuko da edo legeak aurreikusitako lekuetako edozeinetan.

Elikagaien Kalitate eta Industrietako Zuzendaritzaren esku egongo da agindu honetan araututako laguntzen kudeaketa, eskaera bakoitzak eskakizunak betetzen dituen egiaztatuko baitu, hori berariaz jasota utzita.

Ogasun eta Ekonomia

“NON IKUSTEN DUZU EUROPA EUSKADIN?” ARGAZKI LEHIAKETAREN ZORTZIGARREN EDIZIOAREN DEIALDIA 14 ETA 25 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT

- **Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren ekimenaren bidez, Europa hurbildu nahi zaie gazteei eta, horretarako, argazki batean islatu nola ikusten duten Europak laguntzen duela beren ingurunearen garapenean**
- **Lanak maiatzaren 27tik ekainaren 23ra aurkeztu ahalko dira**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren agindua onetsi du; horren bidez, “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” argazki-lehiaketaren zazpigarren edizioaren deialdia egin da.

Lehiaketa Facebook bidez izango da, bai eta Twitter eta Instagram plataformen bidez ere; bertan, gazte interesdunek beren argazkiak argitaratu ahalko dituzte eta Europaren inguruan duten ikuspegia modu sortzaileagoan partekatu.

Helburua da EAEko gazteei EGEF-en –autonomia-erkidego honen lurraldearen garapen ekonomikoari bultzada ematen dioten jarduera inbertitzaileak, proiektuak eta ekimenak finantzatzen dituen funtsa– eskualde-garapeneko partaidetzaren berri ematea, Europarekin lotura duten alderdien gaineko interesa piztea eta, horretarako, hurbileko hizkuntza teknologikoa erabiltzea, gizarte-sareak Europaren zabalkunde-baliabide berri gisa erabiltzea eta abar.

Argazkiek Euskadiren barruan EGEFen edo Europako beste laguntza batzuen finantzaketa jaso duten ekimen edo proiektuak erakutsi beharko dituzte.

Lanak www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus bidez aurkeztuko dira, 2019ko maiatzaren 27tik ekainaren 23ra, biak barne.

Hiru sari emango dira: “Reflex” argazki-kamera, GO PRO HERO kamera digitala eta E-Booka.

Lehiaketaren gaineko argibideak eta oinarriak:

www.facebook.com/federeuropaeuskadi

Hezkuntza

200.000 EURO KONGRESUAK ETA ZIENTZIA BILERAK EGITEKO LAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera presentzialak antolatzeko dirulaguntzak ematen dituen agindua. Kongresu eta bilera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan burutu beharko dira, 2019ko bigarren seihilekoan. Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente kreditatuak, haien kategoria edozein dela ere.

Diru-laguntza hauek, honako gastu arrunt hauek ordaintzeko erabili beharko dituzte: kongresu edo bileraren antolamendua eta zabalkunde gastuak, hizlari gonbidatuen parte-hartze gastuak, edo kongresuen kasuan, ekarpen zientifikorik onenari eman ohi zaion saria, beste hainbat gasturen artean. Jardunaldiok 2019ko uztailaren 1a eta abenduaren 31 artean burutu beharko dira.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, bereziki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola irakaskuntzako eta ikaskuntzako trebakuntzarako prestakuntza-jardunaldiak, tailerrak edo mintegiak, besteak beste.

33 kongresu edo bilera lehen seihilekoan

Deialdi hau sei hilean behin argitaratzen da, eta Euskadin burutzen diren 60 kongresu edo bilera inguru finantzatzen laguntzen du, urtero. 2019ko lehen seihilekoan, 33 kongresu edo bilera lagundu dira diruz, epe horretarako deialdiaren bidez. Kongresu horien antolatzaile izan dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten honako eragile hauek: UPV/EHU, DIPC (Donostia International Physics Center), Bcam (Basque Center for Applied Mathematics), Biomagune IKZ, BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language), Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Azti Fundazioa, edo Aranzadi Zientzia Elkarteak, beste zenbaiten artean.

Ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera hauek oso tresna egokiak dira ideiak eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuak trukatu eta zabaltzeko, prestigio handiko ikertzaile eta irakasleen parte hartzea bultzatzen baitute.

Hezkuntza

1,03 MILIOI EURO ITUNPEKO IRAKASKUNTZAKO SINDIKATUEN 18 LIBERATU FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran baimendu du itunpeko ikastetxeetako sindikatueta 18 liberaturen kostua finantzatzea, 2018-2019 ikasturteari dagokiona. 1.030.327,29 euroko diru-kopurua eskatzen du finantziario horrek.

Hezkuntza Administrazioak bere gain hartzen du finantziario hau 2004ko azaroaren 19ko dataz Hezkuntza Sailak sindikatuekin eta sektoreko patronalekin sinatutako akordioei jarraiki. Aipaturiko akordio horietan jasotzen denez, Administrazioak urtero finantzatuko ditu:

- 12 liberatu sindikal, Euskadiko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Lan Hitzarmenaren eremukoak.
- 6 liberatu sindikal Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Ikastolen Lan Hitzarmenekoak.

Irakasleak erabateko arduraldian sindikatuko zereginetan aritu daitezzen liberatzeak duen kostua finantzatzeko xedea duten 1.030.327,29 euro horietatik, 345.439,45 euro 2018ko iraila-abendua aldiari dagozkio, eta gainerako 684.887,84 euroekin 2019ko urtarrila-abuztua epea finantzatzen da.

Osasuna

**OSASUN SAILAK, AURTEN, 300.000 EURO BIDERATU DITU,
GIB/HIESAREN, C HEPATITISAREN ETA SEXU TRANSMISIOAREN
BIDEZKO INFEKZIOEN PREBENTZIOAN ETA KONTROLEAN LAN EGITEN
DUTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETARA**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Nekane Murga Osasun sailburuaren agindua onetsi du; horren bidez, 2019an, GIB/hiesa, C hepatitisaren eta sexu-transmisioaren bidezko infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak garatzen dituzten gizarte-ekimeneko eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzen deialdia egin da. Laguntzak, guztira, 300.000 eurokoak izango dira.

Osasun Sailak, horrela ere, Euskadin erakunde horiek GIB/hiesaren, C hepatitisaren eta sexu-transmisioaren bidezko infekzioaren eremuan egiten duten lana sustatzen du, kontuan izanik ezinbestekoa dela administrazio publikoek infekzio horien transmisioa prebenitzeko eta dagoeneko birusaren eramaileak diren pertsonen egoera hobetzeko kausa komunean betetzen duten ekintzarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Osasuna

GOBERNU KONTSEILUAK TOKI EREMUAN OSASUNA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK ONETSI DITU

Gobernu Kontseiluak, Osasun Sailak eskatuta, honako agindu hau onetsi du: **2019an** Euskadiko toki-eremuan parte-hartze komunitarioko prozesuen esparruan **osasuna sustatzeko jarduketetarako dirulaguntzen** deialdiaren oinarriak onestekoa.

Parte-hartze komunitarioko prozesuak hainbat agente barne hartzen dituzten egiturak dira. Agente horiek, besteak beste, honako hauek dira: administrazioak, sektoreak (hezkuntzakoak, gizarte-arlokoak, osasunekoak eta abar), herritarrak eta gizarte-erakundeak. Horren bidez, erkidegoaren beharrei erantzun nahi zaie.

Osasuna sustatzeko jarduketak diruz lagunduko dira, eta jarduketa horiek honako gai hauekin izango dute zerikusia: **jarduera fisikoa, elikadura osasungarria, ongizate emozionala, osasunerako edo ongizaterako ingurune mesedegarriak**, etab.

Dirulaguntza horiek Euskadiko udalerrri, mankomunitate eta gainerako toki-erakundeek eskatu ahalko dituzte, bai eta toki-erakunde autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek ere.

Laguntzak **292.000 eurokoak** izango dira, guztira, eta, proiektuko, ezingo dira izan 8.000 eurotik gorakoak, ez eta 15.000 eurotik gorakoak ere erakunde onuradun bakoitzeko, proiektu bat baino gehiago aurkezten bada.

Eskabideak baliabide elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, hilabeteko epean, deialdia EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Agindu horren helburua da toki-eremuan eta osasun-arloaz bestelako beste sektore batzuetatik osasuna sustatzea, "Osasuna politika guztietan" Europar Batasunaren estrategiak eta OMEren Osasunaren Gizarte Baldintzatzaileei buruzko txostenak gomendatzen duten bezala.

Presidencia

EL GOBIERNO DESTINARÁ ESTE AÑO 30 MILLONES DE EUROS A AYUDAS A PROYECTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

- **En la actualidad se encuentran en marcha alrededor de 250 proyectos financiados por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno en su reunión de hoy a la convocatoria de ayudas a proyectos de cooperación para el desarrollo que este año suman un total de 30 millones de euros.

Las ayudas a proyectos de cooperación representan el principal eje de actuación del Gobierno Vasco en esta materia y hacia ellas va dirigida la mayor parte de los fondos que gestiona la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Las ayudas irán dirigidas a financiar proyectos en tres modalidades.

- 1. Proyectos de cooperación para el desarrollo** que contribuyen a la lucha contra la pobreza en países empobrecidos del Sur. A esta modalidad va dirigida la mayor parte de las ayudas, con un monto de 25 millones de euros.
- 2. Proyectos de desarrollo productivo, formación y asistencia tecnológica**, vinculados directamente a la lucha contra la pobreza en países empobrecidos del Sur. A esta modalidad se destinarán un millón de euros.
- 3. Proyectos de educación al desarrollo** llevados a cabo en la Comunidad Autónoma de Euskadi con el fin de fomentar la comprensión de las causas que generan las desigualdades en el mundo y de incentivar la implicación y compromiso de la ciudadanía en la transformación de los modelos sociales actuales. A estos proyectos van dirigidos 4 millones de euros.

Las destinatarias de estas ayudas serán las ONGD vascas, o con delegación en Euskadi, que trabajan de la mano con organizaciones y movimientos de países del Sur.

Las subvenciones por proyecto -cuya duración será de dos años- no serán superiores a los 600.000 euros, y los sectores en los que se enmarcarán son: derechos universales, gobernanza democrática y poder local, desarrollo

económico local, protección y conservación ambiental, y empoderamiento de mujeres.

En la actualidad, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo financia alrededor de 250 proyectos en todo el mundo. La mayoría de ellos, además de en Euskadi, se concentran en Perú, Bolivia y Ecuador, en Sudamérica; Guatemala, El Salvador y México, en Centroamérica; República Democrática del Congo, Senegal y República Árabe Saharaui Democrática, en África; y India y Palestina, en Asia.

Las indicaciones de cómo tramitar las solicitudes y toda la documentación a presentar están disponibles en la sede electrónica: <https://euskadi.eus> y en la página web **www.elankidetza.euskadi.eus**.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Presidencia

AYUDA DE UN MILLÓN DE EUROS A CEAR PARA ATENDER A LA POBLACIÓN MIGRANTE ACOGIDA EN EL ALBERGUE *LARRAÑA ETXEA* DE OÑATI

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy conceder a CEAR Euskadi una subvención de un millón de euros para atender, orientar y dar apoyo a las personas y familias solicitantes en Euskadi de protección internacional, que se encuentran alojados en el centro de primera acogida *Larraña Etxea* de Oñati a la espera de que su situación se vea clarificada

A día de hoy, los trámites ante la policía para confirmar que una persona es aceptada como solicitante de asilo se prolongan por periodos de entre 6 y 15 meses. El objetivo de *Larraña Etxea* es, precisamente, cubrir las necesidades de estas personas mientras se buscan alternativas viables y estables acordes a su situación e intereses. Con carácter excepcional el albergue acoge, también, a migrantes en situación de vulnerabilidad, en tránsito o recién llegados a Euskadi.

Así, el centro ofrece cobertura a las necesidades básicas que presentan estas personas, esto es: acogida (espacio residencial para comer, dormir y tener un espacio propio); atención sanitaria (en coordinación con Osakidetza); atención jurídica; aprendizaje del idioma (a través de personas voluntarias de Oñati y clases en la EPA); y formación (fútbol, baloncesto, informática, costura y participación en ferias y actividades del pueblo). Además, los servicios de catering del centro, así como los de limpieza y lavandería están gestionados por empresas de inserción social.

132 personas de 27 nacionalidades

El albergue abrió sus puertas en octubre de 2018 y tiene una capacidad inicial de 100 plazas, ampliables en caso de necesidad. Desde su apertura, *Larraña Etxea* ha acogido a 132 personas, procedentes de 27 nacionalidades. El perfil de las personas atendidas hasta ahora corresponde al de hombre joven (entre 20 y 30 años) procedente de África Subsahariana (Guinea Conacry, Camerún, Costa de Marfil...) Actualmente residen en el centro 84 personas; entre ellas, tres familias con menores a cargo, y una pareja.

La dirección de la gestión del centro se lleva de manera coordinada entre CEAR Euskadi y la Secretaria General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación, en comunicación con el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO INVIERTE 828.000 EUROS EN FORMAR A LAS PERSONAS QUE TRABAJAN EN LOS TRES NIVELES INSTITUCIONALES DE EUSKADI

- A través del IVAP, el Gobierno contribuye a la formación y perfeccionamiento continuo del personal público para mejorar el servicio público que presta a la ciudadanía
- Las administraciones locales recibirán casi medio millón de euros para la formación de personal público de ayuntamientos, mancomunidades o cuadrillas de menos de 15.000 habitantes

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, dos convocatorias de ayudas para financiar, este año 2019, la formación de las personas empleadas por las administraciones autonómica, foral y local de Euskadi. son ayudas de 828.000 euros que están recogidas en el [“Plan Estratégico de Subvenciones”](#) del Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP.

El objetivo es ayudar a poner en marcha los planes y programas de formación continua aprobados por el Gobierno, las diputaciones y las administraciones locales (ayuntamientos, mancomunidades o cuadrillas):

- Administración autonómica: 125.000 euros
- Administraciones forales: 218.000 euros
- Administraciones locales: 485.000 euros

IVAP

El Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, tiene entre sus fines *“la formación y el perfeccionamiento de los funcionarios y contratados de la Administración Autónoma de Euskadi, o que cualquier otra Administración Pública o el ordenamiento jurídico pudiere encomendarle”*. Así mismo, entre sus objetivos destaca *“fomentar la colaboración con los Territorios Históricos, municipios y demás Entidades de la Administración Local de Euskadi en la formación y perfeccionamiento de su personal”*.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO CONVOCA, UN AÑO MÁS, EL PREMIO LEIZAOLA PARA TRABAJOS RELACIONADOS CON LA SINGULARIDAD DE LA AUTONOMÍA VASCA

- El Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, otorgará un premio de 20.000 euros a la mejor obra y un accésit de 10.000 euros
- Los textos presentados deberán ser inéditas, y presentarse, antes del 8 de julio, a través de la página web, www.ivap.euskadi.eus

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la convocatoria del premio “*Jesús María Leizaola 2019*” para “*trabajos de investigación, consistentes en monografías, elaborados desde distintas perspectivas de estudio y cuyo objeto tenga relación con la autonomía vasca o pueda redundar en el estudio y profundización de ésta*”. El premio está otorgado por el Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP.

La convocatoria está dirigida tanto a personas individuales como equipos de trabajo formados al efecto. Podrán aspirar al premio aquellos trabajos de investigación inéditos, consistentes en monografías, que traten sobre “*la configuración del estado autonómico y la Comunidad Autónoma del País Vasco; la construcción, realidad y perspectivas de la Comunidad Autónoma del País Vasco; la configuración de sus instituciones de gobierno en los diferentes niveles político-administrativos; sus peculiaridades históricas, culturales, bibliográficas, jurídicas, económicas, financieras, presupuestarias, fiscales, sociales, estadísticas y de otros órdenes; así como el diseño, organización, funcionamiento y perspectivas de las administraciones vascas*”.

Los trabajos que opten al premio deberán presentarse a partir de la publicación de la convocatoria en el BOPV, el próximo 5 de junio de 2019, y hasta el 8 de julio de 2019, a través de la página web, www.ivap.euskadi.eus. Las solicitudes, junto con el trabajo de investigación, deberán presentarse mediante tramitación electrónica.

Los premios serán otorgados a los mejores trabajos de investigación de carácter científico y en esta nueva edición, está dotado en total con 30.000 euros:

- 20.000 euros para un primer premio
- 10.000 para un accésit

PREMIO “JESÚS MARÍA LEIZAOLA”

El Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, creó este premio en 1990 con el nombre de Jesús María Leizaola, en recuerdo de quien fuera uno de los exponentes más prestigiosos y representativos de la autonomía vasca, y con el fin de promover y difundir estudios sobre las peculiaridades jurídicas y económicas del sistema autonómico vasco, precisamente, una de las funciones del propio instituto.

Desde entonces, este organismo, viene convocando el premio para renovar, periódicamente, el propósito de estimular y dar a conocer los esfuerzos de investigadores que, con libertad absoluta, dirijan sus estudios hacia temas relacionados con la autonomía vasca o que puedan redundar en su estudio y profundización.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO CONSIDERA POSITIVO QUE EL PARLAMENTO VASCO AVANCE EN LA SUPERACIÓN DE LA DISCRIMINACIÓN POR MOTIVO DE IDENTIDAD DE GÉNERO

- **Euskadi es un país pionero en el reconocimiento de las personas transexuales y celebra el amplio consenso político conseguido en torno a la futura ley de reconocimiento de sus derechos y la no discriminación**

El Consejo de Gobierno ha manifestado, hoy, criterio favorable a la tramitación de la *“Proposición de Ley de modificación de la Ley 14/2012, de 28 de junio, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales”*.

El Gobierno Vasco considera que es una iniciativa parlamentaria positiva porque avanza en la superación de todas las discriminaciones que puedan darse por la condición o circunstancias de las personas transexuales. En este sentido, destaca que Euskadi es un país pionero en el principio de no discriminación y libre desarrollo de la personalidad humana y más en concreto, en el respeto a la identidad de género.

Además, el Gobierno Vasco celebra el amplio consenso político suscitado por esta iniciativa parlamentaria cuya toma en consideración se votará próximamente.

EUTANASIA

Igualmente, el Consejo de Gobierno ha decidido, hoy, no emitir criterio y, por tanto, no condicionar ni interferir en la tramitación de la *“Proposición de Ley, a tramitar como Iniciativa Legislativa Autonómica ante las Cortes Generales, para la modificación del artículo 143.4 de la Ley Orgánica 10/1995, del Código Penal”*, una iniciativa que persigue la despenalización de la eutanasia. El Gobierno Vasco cree que la iniciativa de EH-BILDU tiene un alto componente ideológico y, por ello, la mejor manera de abordar esta cuestión es analizarla, debatirla y decidirla atendiendo a las posiciones libremente defendidas por los diversos partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO FINANCIARÁ CON 300.000 EUROS PROYECTOS INNOVADORES EN BIOECONOMÍA FORESTAL

- Se apoyarán trabajos piloto que transformen materia prima y productos forestales para obtener otros con alto valor añadido.
- El Gobierno Vasco está trabajando para posicionar a Euskadi como referente europeo en este campo.

El Gobierno Vasco ha aprobado en su última reunión de Consejo la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan, para el año 2019, las ayudas dirigidas a financiar proyectos de innovación en bioeconomía forestal. Dotadas con una cuantía de 300.000 euros, tienen como objetivo apoyar la realización de proyectos piloto innovadores en el ámbito de la bioeconomía forestal que transformen materia prima y productos forestales y obtengan otros con alto valor añadido.

Estas ayudas se enmarcan en la decidida estrategia de apoyo a las prácticas sostenibles que la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria viene desarrollando con el objetivo de posicionar a Euskadi como referente europeo en materia de bioeconomía, con el objetivo de alcanzar un desarrollo socio-económico sostenible a través de un uso eficiente de los recursos naturales.

Beneficiarios y actividades subvencionables

Los beneficiarios de las ayudas aprobadas podrán ser pequeñas, medianas o grandes empresas así como sus agrupaciones y comunidades de bienes. Los costes subvencionables serán los relativos a gastos de personal, de instrumental, material y de edificios e infraestructuras, así como los derivados de actividades de comunicación y divulgación. El porcentaje máximo de la ayuda será hasta el 80% de los costes subvencionables

El plazo máximo de ejecución de los proyectos objeto de la ayuda concedida será el 31 de diciembre del presente ejercicio 2019, sin perjuicio de la posible concesión de prórroga.

Presentación de solicitudes y plazos

El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la orden en el Boletín Oficial País Vasco.

La solicitud de ayuda estará disponible en la dirección web <http://www.euskadi.eus> y se presentará en las dependencias del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras o bien en cualquiera de los lugares previstos por la Ley.

La Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias será la competente para la gestión de las ayudas reguladas en la presente orden, verificando en cada solicitud el cumplimiento de los requisitos y dejando constancia expresa de ello.

Hacienda y Economía

CONVOCATORIA DE LA OCTAVA EDICIÓN DEL CONCURSO FOTOGRAFICO “¿DÓNDE VES EUROPA EN EUSKADI? PARA JÓVENES DE ENTRE 14 Y 25 AÑOS

- La iniciativa de la Dirección de Economía y Planificación pretende acercar Europa a la juventud plasmando en una fotografía su visión de cómo Europa contribuye al desarrollo de su entorno
- Las obras podrán presentarse a partir del 27 de mayo al 23 de junio

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la orden del Consejero de Hacienda y Economía por la que se convoca la séptima edición del concurso fotográfico ¿Dónde ves Europa en Euskadi?.

El concurso se desarrollará a través de Facebook y también a través de las plataformas de Twitter e Instagram, donde las personas jóvenes interesadas pueden publicar sus fotografías y compartir su visión de Europa de una forma creativa.

Se trata de dar a conocer a la juventud de la CAE la participación en el desarrollo regional del FEDER, fondo que financia actividades inversoras, proyectos e iniciativas realizadas que dan impulso al desarrollo económico del territorio de esta Comunidad Autónoma, despertar el interés en aspectos relacionadas con Europa empleando un lenguaje tecnológico próximo, afianzar la utilización de las redes sociales como nuevo medio de difusión de Europa , etc..

Las fotografías deberán mostrar iniciativas o proyectos dentro de Euskadi que hayan recibido financiación por parte de FEDER u otras ayudas europeas.

El plazo de presentación de las obras se realizará a través de www.facebook.com/federeuropaeuskadi desde el 27 de mayo hasta el 23 de junio de 2019, ambos días incluidos.

Se otorgarán tres premios: una cámara fotográfica “Reflex”, una cámara Digital GO PRO HERO, y un E-Book.

Información y bases del concurso en:

www.facebook.com/federeuropaeuskadi

Educación

200.000 EUROS EN AYUDAS PARA LA REALIZACIÓN DE CONGRESOS Y REUNIONES CIENTÍFICAS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas para la organización de congresos y reuniones del ámbito de la investigación científica, de carácter presencial, y que se realicen en Euskadi durante el segundo semestre de este año 2019. Esta convocatoria tiene un importe global de 200.000 euros.

Estas ayudas están dirigidas, como entidades beneficiarias, a los agentes acreditados de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, en cualquiera de sus categorías.

La subvención se podrá destinar a sufragar total o parcialmente actividades de organización y difusión del congreso o reunión científica, participación de ponentes invitados, ayudas a jóvenes investigadores e investigadoras, y premios a la mejor contribución científica –en el caso de Congresos-, entre otros gastos. Los eventos deberán desarrollarse entre el 1 de julio y el 31 de diciembre de 2019.

Quedan excluidos de esta convocatoria los cursos y actividades de carácter principalmente formativo, tales como jornadas de formación, talleres y seminarios de capacitación docente.

33 congresos o reuniones durante el primer semestre

Esta convocatoria de congresos, que se publica con una periodicidad semestral, contribuye a la financiación de cerca de 60 congresos y reuniones científicas desarrolladas en Euskadi cada año. Mediante la convocatoria correspondiente al primer semestre de este año 2019, se han subvencionado 33 congresos o reuniones que se han desarrollado en Euskadi, organizados por diversos agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, como son: UPV/EHU, DIPC (Donostia International Physics Center), Bcam (Basque Center for Applied Mathematics), CIC Biomagune, BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language), Mondragon Unibertsitatea, Universidad de Deusto, Fundación Azti, o la Sociedad de Ciencias Aranzadi, entre otros.

Los congresos y reuniones del ámbito de la investigación científica son mecanismos idóneos para promover el intercambio y difusión de las ideas y los conocimientos científicos y tecnológicos avanzados, potenciando la participación de investigadores y profesores de prestigio reconocido. Aumentan, asimismo, la visibilidad global de la ciencia vasca.

Educación

1,03 MILLONES DE EUROS PARA LA FINANCIACIÓN DE 18 LIBERADOS Y LIBERADAS SINDICALES DE LA ENSEÑANZA CONCERTADA

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy financiar el coste de 18 liberados y liberadas sindicales de centros educativos concertados para el presente curso 2018-2019, por un importe total de 1.030.327 euros.

La Administración Educativa asume esta financiación en virtud de los acuerdos firmados, con fecha de 19 de noviembre de 2004, entre el Departamento de Educación, las organizaciones sindicales y las patronales más representativas del sector. Según lo previsto en los citados acuerdos, la Administración financiará cada año el coste de:

- Hasta 12 liberados y liberadas sindicales en el ámbito del Convenio Colectivo de los Centros de Enseñanza de Iniciativa Social de la CAV.
- Hasta 6 liberadas y liberados en el Convenio de las Ikastolas de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia.

Del importe total de 1.030.327,29 euros, que tiene la finalidad de financiar el coste que supone la liberación de 18 docentes para su dedicación exclusiva al ámbito sindical, 345.439,45 euros corresponden al periodo septiembre-diciembre de 2018, y 684.887,84 euros financian el periodo enero-agosto de 2019.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD DESTINA ESTE AÑO 300.000 EUROS A ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO QUE TRABAJAN EN LA PREVENCIÓN Y EL CONTROL DEL VIH/SIDA, LA HEPATITIS C Y LAS INFECCIONES DE TRANSMISIÓN SEXUAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Orden de la Consejera de Salud, Nekane Murga, por la que se convocan ayudas dirigidas a entidades de iniciativa social y sin ánimo de lucro que desarrollen durante 2019 actividades de prevención y control del VIH/sida, Hepatitis C (HC) y de las Infecciones de Transmisión Sexual (ITS) en el ámbito de Euskadi, por importe de 300.000 euros.

El Departamento de Salud mantiene así el impulso a la labor que desarrollan en Euskadi estas organizaciones en el campo del VIH/sida, la Hepatitis C y las ITS, imprescindible junto a la acción de las distintas administraciones públicas en la causa común de prevenir la transmisión de estas infecciones y mejorar la situación de las personas ya portadoras del virus.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a partir del día siguiente a la fecha de publicación de esta orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Salud

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LAS BASES DE LA CONVOCATORIA DE AYUDAS A LA PROMOCIÓN DE LA SALUD EN EL ÁMBITO LOCAL

El Consejo de Gobierno, a petición del Departamento de Salud, ha aprobado la orden por la que se aprueban las bases de la convocatoria de **subvenciones dirigidas a actuaciones de promoción de la salud**, en el marco de procesos de participación comunitaria, en el ámbito local de Euskadi durante **2019**.

Los procesos de participación comunitaria son estructuras que engloban a diferentes agentes, entre ellos administraciones, sectores distintos (educativo, social, sanitario etc), ciudadanía y organizaciones sociales, con el objetivo de responder a necesidades de la comunidad.

Se subvencionarán actuaciones dirigidas a promover la salud, que pueden estar relacionadas con la **actividad física, la alimentación saludable, el bienestar emocional, entornos favorecedores de la salud o el bienestar**, etc.

Podrán acogerse a estas subvenciones los municipios, mancomunidades y las demás entidades locales de Euskadi, así como los organismos autónomos locales y las sociedades mercantiles locales.

Las ayudas, dotadas con un total de **292.000 euros**, no podrán superar los 8.000 euros por proyecto, ni los 15.000 euros por entidad beneficiaria, en el caso de presentar más de un proyecto.

Las solicitudes deberán presentarse por medios electrónicos en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria en el BOPV.

El fin de esta Orden es promover la salud en el ámbito local y desde otros sectores diferentes al sanitario, tal y como recomiendan la estrategia de la Unión Europea "Salud en todas las políticas", así como el informe sobre los Determinantes Sociales de la Salud, de la OMS.